



Andoni Perez Cuadrado Gerra ostearen lekuko

Katebegia da Andoni Perez Cuadrado. Gerra osteko giro makurrean zaildu zen, polizia buru zitalak txakurra baino lotsagabeago jaun eta jabe zebiltzanean Gasteizko kalean. Zaparradari eutsi zion orduan, eta erauntsiari eusten irauten du gaur egun, bizkarrean laurogeitaka urte dituenean...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco



Nortasun agiria

Andoni Perez Cuadrado (Gasteiz, 1926). Banco Vizcaya-n, Lan Kide Aurrezkian eta Orona enpresan lan egina.

Eliza, politika eta gizartea, hiru hitzok definitzen dute Andoniren jarduna. Politika... Gerra ostean abertzaletasunak Araban izan zuen historiaren lekuko bizia da. Eliza... Arabako Gazteria Katolikoaren lehendakariorde izan zen. Konpromisoaren sinonimo ditu eliza eta ebanjelioa: "Ahularen aldeko borroka, horixe, nahiz eta eskuina saiatu den ebanjelioa *Alizia herrialde miresgarrian* izan dadin". Gizartea... Hainbat elkarte eta institututako kide da, noiz hirugarren adinekoak, noiz buru osasunekoak.

Gudarien ondoko belaunaldikoa dela dio, haiengandik edan duela. Haiek utzitako ilintia gori iraunarazten lan egin zuen. 1956tik 1961era, EAJk Araban izan zuen militante bakarrenetakoa izan zen, buru denak atxiloturik. "Laudioko Errazti eta besteren bat, Araban alderdiak ez zuen beste militanterik. EGI, ETA zein ELAkoa izan, bost urte haietan denek niregana jotzen zuten". EAKo militante da haustura gertatu zenetik, Euskaria Fundazioko kide, Andoniren memoriak idazten hasita daude bertan, herri honen historiaren atal bizia betiko gal ez dadin.

«ETAk lehen taldea neuk sortu nuen, ezjakinean»

Lehenago ere hitz eginda nago zurekin, Gasteizen gerra ostean izan zen giroaz. Dena dela, oraindik orain jakin ditudanak izu-ikaratan utzi naute: Meliton Manzanasek torturatutakoa zaitugu...

Bai, 1961ean, atxilotu ninduten azkeneko aldian. Tinpanoa hautsi zidan, halako zartakoa eman zidan! Besteak beste, harri punta zorrotzen gainean belauniko jarrazazi ninduen; gero, ostikoka eraso zidaten, mina areagotzeko. Poliziak bere onetik irteten ziren, patxada galtzen ez nuelako. Eutsi egiten nien, eta nire ama eta andrea zergatik iraintzen zituzten galdetzen nien. Horrexek egiten zidan minik handiena, nik maite nituenen izenak haiek horrela erabiltzea. Gainerakoan, jakinekoak dira haren metodoak: deskarga elektrikoak, zigarroarekin egindako erredurak, atxilotuen loa galaraztea,

biluzgorritzea, sexu harremanak izatera bultzatzea, kandelak erabiliz behatz mamiak erretzea, eskuetan egur zotzak sartu eta su ematea... Andrezkoak, berriz, "puta" gora eta "puta" behera erabiltzen zituen.

1968an ETAk hil egin zuen Meliton Manzanasek.

Bai, baina nik ez nuen ospatu, askok egin zuen bezala. Ez diot heriotza inori opa, baina Meliton Manzanasek ez zen benetako gizakia. Odolozale ankerra zen.

Zeure larruan bizi izan zenuen hura. Zer ari zara, hortaz, polizia ergela dela esanez? Behin baino gehiagotan entzun dizut horixe esaten.

Ergela da-eta polizia. Eztabaida handiak izan ditut lagunekin. "Polizia? Ergel galantak!" esaten diet nik. Hogei urtean hamalau aldiz atxilo-

tu ninduten. Bada, behin bakarrik prozesatu ninduten, 1951n, grebaren kontuagatik. Poliziak hartu eta eramaten ninduenean, nire buruarekin hasten nintzen: “Halakorengatik izango duk!”. Hasten ziren itaunketan eta: “Orain ere ez ditek asmatu!”. Gainerakoan, Meliton Manzanasen eskuetan erori nintzen ibili ziren hurrena, atxilotu zutenetako batek nire izena aitatu zuelako, ez besterik.

Hamaika aldiz atxilotu zintuzten...

Bai, eta egundo ez zidaten ezer leporatu. Zer edo zer harrapatu izan banindute, puska baterako baneukan! Behin, lan egiten nuen banketxeko zuzendariari esan ere egin zion Manuel Cabezas poliziak: “Hobe duzu honi ordezeko bat bilatzen hasi! Hamar urtean ez zaizu itzuliko!”. Horiexek izan ziren poliziaren hitzak. Nik ez nuen denbora askorik behar izan erantzuteko: “Hori epaileak esan beharko du, ala?”. Ostegun batez izan zen. Bada, hurrengo astelehenean kalean nenbilen, familiarekin paseoan. Halako batean, Cabezas hura bestaldeko espaloian guri begira zegoe-la konturatu ginen. Etorri ere egin zitzaigun: “Zer zabiltza zu kalean?”. “Ni? Non da kalean familiarekin paseoan ibil nadin galarazten duen legea? Epaileak libre utzi nau!”. Poliziara eramaten nindutenean zera bat agintzen nion beti nire buruari, ez zidatela izenik aterako. Nik ez nuen txintik esaten. Ezer esan nuen aldian, berriz, hebain-hebain egin ninduten. 1961eko atxilotetan izan zen. Itaunketak psikologikoak ohi ziren, edo inor guxtiestekoak.

Itaunketak psikologikoak, orduan izango ziren. Bestelako kontuak entzuten ditugu behin eta berriz. Eta polizia ergela, gaur egun?

Gaur egun... ez dakit. Oraingoak ez ditut eza gutzen. Gaur egun, orduan ez bezalako bitartekoak dituzte. Orduan, gainera, oso harroputz jokutzen zuten. Diktadura gorrienean, ez zuten uste inor mugitzeko gauza izango zenik. Garai hura aztertua duen zenbait historialarik ere horixe bera dio, alegia, lau oilo ginela, ez ginela nor, ez genuela baliabiderik... Eta egia da, ez genuen baliabiderik, ez diru ez ibilgailurik, baina poliziaren harropuzkeria hark berak gure alde jokutzen zuen, jokoz kanpo harrapatzen genituen beti edo gehienetan. 61eko aldi hartan, atxilotu eta autoz eramaten ninduten Donostiara. Ordu bat eta bost minutu behar izan zituzten! Zitzuan joan ginen, gau hartan bertan hasi nahi zutelako itaunketa egiten. Harrapatu zizkiguten paperak pila batean zeuzkaten. Liburuak, paperak... Denetatik zegoen han. Polizia burua paper haiek gainbegiratzen hasi eta, tartean, Falangearenak zeuden. “Zer arraiio ekarri digute, ordeak!”. Halako abade baten homilia, Jose Antonio Agirreren heriotza oroi-garria... Horrelakoak! Horregatik diot, bada, ergelak zirela!

Meliton Manzan

“Jakin nuenez, behin, Irungo polizia-etxean lapurreta egin zuen bertako poliziaren batek. Egin zuten batzarra eta lapurra bota egin behar zutela zioten batzuek. Melitonek: ‘Tira, bota ez. Ezkondurik dago... Zigortu bai, ikas dezan’. Itaunketa gelara sartu eta sekulako lixiba eman zioten. Hiru hilabete egin omen zituen ospitalean, bateko hautsia eta besteko isuria, hiltorian. Egun batean bisitan joan omen zitzaion Meliton. ‘Hori egin dian aluak ere!...’. Eta ohean zetzanak: ‘Hurrena, itaundu behar banauk, erantzi ezak hire eraztun hori, nik ez ezagutzeko!’. Hori zen Meliton Manzan”.



III. etxepare beka Haurrentzako albumak sortzeko

Saria: 6.000 euro

Argitaratzaileak:

Pamiela eta Faktoria K de libros

Originalak aurkezteko epemuga:

2008ko azaroaren 28an,

Burlatako Udaletxean (Nafarroa)

oinarriak: www.baranain.com

antolatzaileak:

Auritz, Erroibar eta Laznideko Udalak;
Barañaingo Udala/Ayuntamiento de Barañain;
Bastango Udala; Berrioko Udala; Bortzirietako
Euskara Mankomunitatea; Burlatako Udala;
Garesko Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara
Mankomunitatea; Lizarrako Udala; Mulerretako
Mankomunitatea; Orkoien, Obazako Zentzu,
Etxauri, Ollaran eta Bidaurretako Udalak;
Sukarriako Mankomunitatea; Uharti eta
Esteribariko Zerbizko Mankomunitatea; Zamaizua
eta Errokariko Batzorde Nagusiak; Zizur
Nagusiako Udalaren Kultura Patroinatua.

laguntzaileak:

Nafarroa
Gobernua



Madriken izana zara berrikitan, 18/98 auzia tarte-ko.

Defentsaren lekuko gisa joan naiz, bai. Epail-ee, lehengo lepotik burua. Ez ditut ezagu-tzen, baina iruditzen zait bat baino gehiago Frankismotik bizirik irteerak izango dela. Diktaduraren lehen arabera jardundako epai-leek orain demokraziaren arabera ari direla sinetsi beharra ere... 1951ko greba gogoraraz-ten dit egoera horrek.

Lehen ere aipatu duzu. Zertan izan zen 1951ko greba?

1946an greba handi xamarra egin zen Euskal Herrian, Katalunian eta bestetan, baina 1951koa greba orokorra izan zen eta, batez ere, egoera Araban bihurtu zen. Gipuzkoan irten ziren greban lehenengo, eta Arabako gobernadore Luis Martin Ballesterosek –zorigaiztokoak–, ez

Bruno Ruiz de Apodaca

“Bruno Ruiz de Apodaca... Gaiztoa zen hura! Kideek ere ez zuten begien bistan ikusi nahi. Baina berak agintzen zuen! Zapataria izana zen, ez zuen polizia izateko aparteko jakituriarik. Horretan, nik beti esan izan dut, eta idatzi ere egin dut, koldarrak direla zitalenak. Horietakoak dira salatariak, begiluzeak, txibatoak. Jende izua, azkenean, munstro bihurtu ohi da. Estuasunean, beren burua besterik ez dute ikusten”.

AZKEN HITZA

Lo trongo

“1961ean, azkeneko atxilotetaren ostean, Juan Ajuriage-rrak esan zidan erreta nengoela. ‘Ezertan hasi orduko, egur-tu egiten haute. Hemendik atzera, utzi Arabako Buru Batza-rraren kontuak, eta Eusko Jaurlaritzak Araban izango duen ordezkaria izango zara’. Nik ez nuen horrelakorik eskatu, ezta asmorik ere. Lehengo bideari segitu nion, ordu arte egi-ten nuena eginez. Saltsa guztietan sartuta, batetik eta bes-tetik jipoituta, baina zoriontsu. Lo trongo egiten dut”.

zuen prentsan agertu baino ideia hobea izan. Arabak ez omen zion probokazioari kasurik egingo, ez zuela grebarik egingo, Arabak bat egi-ten omen zuen “erregimenarekin”... Gure herriari ez zitzaion hura gustatu. “Ez dugula gre-barik egingo? Ikusiko dik horrek!”. Eta fabrika-rik handienetan –Ajuria, Aranzabal eta horie-tan–, emakumeak lantegi atarira joan zitzaizkien gizonei, lanari utzi ziezaioten. Arto eta gari aleak bota zituzten zenbait fabrika ataritan, lanean ari zirenak oilo hutsak zirela adieraziz. EAJ eta ELA ibili ziren, batez ere, greba haren atzean. Ondorioz, EAJren kupula osoa atxilotu zuten, eta mandatariok: Manuel Andoin eta biok; gaz-teak, alegia. Huraxe izan zen nire “ibilaldiaren” hasiera... Ikusi egin behar zen gobernadorearen haserre! Polizia bat izan zen bere lana utzi zuena, kideek erabili zituzten metodoak ikusita. Prozesatu gintuztenean, hilabete eduki gintuz-ten, bakartuta, ilea hondo-hondotik moztuta. Azkeneko egunean, ate hotsa, burrunba, eta gure izenak esaten zituztela. Uste genuen paseo-an atera behar gintuztela, gerra ostean fusilatu zituzten haiek bezala... Epailak erabat erruga-be ginela adierazi zuen. Hiru kargu egotzi zizki-guten: legez kanpoko propaganda, legez kanpo-ko elkarteak, eta errebelatze militarra. Libre irten ginen. Gasteizen polizia konforme ez eta Burgo-sa jo zuen, baina han ere ez zieten kasurik egin. Epailak, berriz, Corniero deiturakoa, Briviesca-koa (Espainia), falangista, gerra elbarria... ados ez hemengo poliziak eta jendailak zerabiltzan metodoekin eta utzi egin zuen judikatura.

Zure “ibilaldiaren” hasieraz jardun duzu. 1951n atxilotu al zintuzten estreinakoz?

Ez, lehenago, 1948an, soldadutzan nengoela, Aberri Egunean Karmengo elizara joan ginen, mezataria. Handik irten eta Floridako txurro-dendara joan ginen, gosaltzera. Ordurako, Apodacak elizan ikusiak gintuen. Leku guztie-tan zegoen Apodaca hura. Pello Romarategi eta Jabier Olano, meza esaten. Atzera kuartelera joan nintzenean, agintarien deia, bi polizia eto-rri zitzaizkidala, atxilotzera. Militarrek esan

zidan: “Soldadu zara, nire agindupean zaude. Zoaz, baina hemen nahi zaitut ordu laurden barru! Eta, argil, ez zaitzatela ukitu!”. Poliziek eraman ninduten, eta hantxe nire kide guztiak! Barrez hasi nintzen haiek denak han ikusita. Deklarazioa hartu zidaten eta atzera kuartelera. Polizia nire atzetik zer zebilen galdetu zidanean, mezatara joan nintzela-eta, erantzun nion. “Hori duk ergelkeria! Mezatara joateagatik hainbeste istilu!”.

Handik urte batzuetara, ETA.

ETAko lehen taldea neuk sortu nuen, ezjakinean. Nirekin harremanetan sartu ziren. Madariaga, Benito del Valle, Agirre... Hamabosten bat lagun izango ziren, bilerak egiten zituzten gure etxean, urtea pasa, astero! Bosgarrenean bizi ginen, igogailurik gabe. Poliziak inoiz ere ez zidan haren gainean galderarik egin. Horregatik diot, bada, ergelak zirela... Gauza asko egokitu zait nire bizian. Hara, aita-amaginarrebak eskuin muturrekoak nituen. Esan ere egiten zuen aitagarrebak: “Hau ere baduk! Alaba bakarra izan diagu eta nazionalista batekin ezkondu behar!”. Eskuin muturreko giroan hezi zuten nire emaztea izango zena, baina, gero, berak aurreratu ninduen ezkerretik! Beti lagundu ninduen eta, estuasunean, esan izan zuen: “Baina, orain ere zuk egin behar al duzu hori?... Tira, horrela beharko du, hori ere baten batek egin beharko du eta!”.

Gutxi bezala ezagutzen duzu garai hartako gerra osteko Gasteizko giroa. Askotariko agiri eta dokumentuak bildu dituzu.

Aita Morenoren egunerokoa daukat, adibidez. Banco Vizcaya-n lan egin nuenean, Julian Moreno zen zuzendaria, josulagunaren anaia, nazionalistak biak. Adiskide handiak gintuzten. Gure aita banketxeko langilea zen, eta konfiantza handia ziguten. Zorigaitzez, Julian Moreno gazterik hil zen. Bada, gerra osteko giroa hartatik urteetara, behin, zuzendaritzara joateko deia egin ziguten aitari eta bioi: han ziren zuzendaria, zuzendariordea, eta aita Moreno. Oso agur beroa egin zigun, eta galdera egin ere bai. “Zer, Apodacaren berririk ba al da?”. Eta zuzendariordeak orduan: “Baina, gizon hori, esaten den beste al da?”. Han hasi zen aita Moreno, hizketan, eta zuzendaria —epel xamarra zen, izan ere—, jarri egin behar izan zen, josulagunak esaten zituenak entzun ahala, hau da, aita Morenok berak bertatik bertara ezagutu zituen kasuetako batzuk entzunda...

Zer dago aita Morenoren egunerokoan?

Bada, horixe, nola lagundu izan zien fusilatuei heriotzara zeramatzatenean... Esate baterako, kontatzen du nola bi lagun harrapatu zituzten, eta zuzenean fusilatzen eraman zituzten. Bata, zeharo historiko jarri omen zen, orroka, sakelan

Ramon Narbaiza-eta

“Nik ez dakit behin ere behar bezala aintzat hartuko den apaiz askok egin zuten lana. Asko lagundu ziguten, baita ezkutuko propaganda batera edo bestera helarazten ere. Adibidez, niri, Ramon Narbaizak esan izan zidan: ‘Andoni, benetan estuasunen batean zarenean, eman nire izena!’. Eta, haren izena poliziari emanez gero, esaten zuten: ‘Alu hori ere hemen edukiko dut, zure ondoan, itaunketan!’”. Baina 50eko hamarkadan ez ziren kleroaren kontra jotzen ausartzen, ez zen 1936an bezala. Ez gogorik ez zutelako, horratik!”.

begiratzeko hari, begiratzeko sakelan hari... Soltxaga jeneralaren eskutitza zeraman, kaixo eta agurka, eta paper hari esker libratu zen. Horrela egiten zituzten gauzak. Gogoratzen naiz beste baten kasua, Gorrotxategi batena, Argantzunen fusilatu zutena. Kontratista zen, Sevillan. Aita Moreno harengana eraman zutenean eskuak lotuta eta guztiz zarpailduta zegoen Gorrotxategi hura. Lehenengo, askatzeko agindu zien aita Morenok zaindariei. “Zer egin behar didate, ordea?”. “Hauek, edozer gauza, okerre! Eman dezagun teila erori zaizula buru gainera eta ordu gutxi geratzen zaizkizula”. Fusilatzen zeramatela, Gorrotxategi aita Morenori: “Badakit euskaldunek atxikimendu berezia diotela txapelari. Nik, txapela jantzita hil nahiko nuke”. Eta aita Morenok hari txapela eman eta halaxe hil omen zen Gorrotxategi. Gero, Zadorra ibaira botako zuten, egin ohi zutenez. Askotan, binaka eramaten zituzten fusilatzen. Bata tirokatzen zuten, eta bestea harekin batera botatzen zuten ibaira. Lehenaren pisuak hondora eramaten zuen bigarrena ere... Horrela egin ohi zuten Eboko Conchas de Haron, adibidez. Han ez zen Apodacarik izan, baina Lukun bai... Lukun zazpi-zortziren bat gorpu egon behar dira oraindik! Aita Morenok baso bazterrerara bidea ere deskribatzen du. Kontatzen du nola, lehenengo, nori bere zuloa eginarazi zioten, eta hiltzera zihoazen momentuan, esan zuela Apodacari: “Ho-ho-hori utzi niri!”. Totela baitzen! Jarriko zion pistola lokian eta esango zion: “Ha-ha-hasi hadi Jesu Kristo e-e-ene Jauna’ e-e-e-rrezatzen, bahoake-eta beste aldera!”. Eta lurperatu zituztenean, esan omen zuen Apodacari: “Ez dakit ha-ha-hau guztia oso kris-s-s-taua den, baina beharrezkoa da”. Horiexek izan omen ziren haren hitzak.

Aita Anituak ere antzeko lekukotasunak utzi zituen idatzirik Azazetan fusilatuta hil zituztenei buruz.

Izan ere, aita Anitua arduratu zen Gasteizen fusilatu zituzten lehen hiru lagunez: Mendizabal, Estabillo eta beste bat, abertzaleak hirurak, mendigoizaleak. Gorbeian harrapatu zituzten. Gasteiza ekarri, espioiak omen ziren... Lauaxeta, Lurgorri, Markiegi, Galarza, Luis Alava... Oilo-ipurdia egiten zait, haien sosegua, hil hurren egonagatik! Eta ondoan eduki zituzten apaizen lana? Eliza bera ere ez zen horretaz kezkatu. Kontu horiek ez dira kontatu, eta kontatu beharrekoak dira.

Laburtzen zaila, zuk bizi-ikusitakoak...

Ez ezazu uste. Azken finean, bi ardatz baino ez ditut izan nire bizian: eliza eta aberria, eta bi horien inguruan mugitu diren hariak. Aberriaren gainean askok galdetzen didate. Elizari buruz, aldiz, interesik ez dagoela ematen du. Nork bere norberekeriak ditu, eta kito! ■